TOKI ADMINISTRAZIOA | 3 | ADMINISTRACIÓN LOCAL

ARETXABALETAKO UDALA

Iragarkia

Aretxabaletako Udalak 2023ko apirilaren 27ko osoko bilkuran erabaki zen Aretxabaletako Udalak emandako dirulaguntza zelan eman eta kudeatu arautzen duen ordenantza aldatzea. Jendaurreko epean inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ez denez behin betikoz onartu eta aipatutako ordenantzan aldatu den artikulua argitaratzen da.

18. artikulua. Dirulaguntzak zertan erabiltzen diren justifikatzea.

1. Dirulaguntzen onuradunek nahitaez egiaztatu beharko dute hartutako dirua erabili dutela dirulaguntza emateko zio izan den helburua.

2. Dirulaguntza erregulatzeko oinarriek xedaturikoaz gain, dirulaguntza egiaztatzeko ondoko dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Erakundearen jarduera globalaren nahiz diruz lagundutako ekintzaren edo ekintzen memoria, eta adieraziko da horretan zer gastu eta diru sarrera izan den, eta jatorrizko dokumentuekin batera (legezko balioa duten fakturak edo egiaztagiriak), eta hauen ordainagiriak, diruz lagundutako ekintza egitetik sortutako gastuei eta diru sarrerei dagozkienak, eta egin diren ekintzetan lortu diren emaitzen balorazioa.

b) Halaber, helburu jakin baterako dirua biltzeko diren dirulaguntzetan (adibidez, aipatu ditzakegu Kilometroak, eta antzekoak), ez da aurkeztu behar izango jatorrizko fakturarik edo dokumenturik, eta dokumentazio hori aurkeztu barik, dirulaguntzaren onuradunek bidali dezakete ekintza egitean sortu diren gastu eta diru sarreren balantzearen zenbaki laburpen bat.

Aretxabaleta, 2023ko ekainaren 30a.—Garikoitz Iturbe Etxebarria, alkatea. (4960)

AYUNTAMIENTO DE ARETXABALETA

Anuncio

El Ayuntamiento de Aretxabaleta acordó en sesión de pleno de fecha 27 de abril de 2023 modificar la ordenanza reguladora de la concesión y gestión de las subvenciones concedidas por el Ayuntamiento de Aretxabaleta. No habiéndose presentado reclamación o sugerencia alguna, en el plazo de información pública, se encuentra aprobada definitivamente, procediéndose a la publicación del artículo modificado de dicha ordenanza:

Artículo 18. Justificación del destino de la subvención.

1. Las personas beneficiarias de las subvenciones estarán obligadas a justificar que los fondos percibidos han sido destinados a la finalidad que sirvió de fundamento a la concesión de la subvención.

2. Sin perjuicio de lo que puedan establecer las bases reguladoras de la convocatoria para la concesión de subvenciones, para la justificación de la ayuda obtenida deberá presentarse la siguiente documentación:

a) Memoria tanto de la actividad global de la entidad como de la actividad o actividades subvencionadas, con indicación de los gastos e ingresos habidos, junto con los documentos (facturas o justificantes con validez legal) originales, justificantes de pago correspondientes a los gastos e ingresos derivados de la realización de la actividad subvencionada, así como una valoración de los resultados obtenidos con las actividades llevadas a cabo.

b) En los supuestos de concesión de subvenciones cuya finalidad sea la recaudación de fondos para un destino concreto (a título de ejemplo, podrían citarse casos como Kilometroak, y análogos) no será necesaria la presentación de facturas o documentos originales, pudiendo sustituirse dicha documentación por la remisión, por parte de los beneficiarios de la subvención, de un resumen numérico del Balance de gastos e ingresos derivados de la celebración del acto.

Aretxabaleta, a 30 de junio de 2023.—El alcalde, Garikoitz Iturbe Etxebarria. (4960)

EK\CV GAO-I-2023-04960